

natari
PRES

IGOR LEGARRETA ZINE ZUZENDARIA

ALDAZKO HARROBIA, THRILLER BATEN TESTIGU

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

WAILOPE

256

2018ko martxoa

TOKIKOM



ZURRUMURRUAK

Behin batean, gizon zahar batek, bere auzoko mutila lapurra zen zurrumurrua zabaldu zuen. Horren ondorioz, mutila atxilo hartua izan zen. Egun batzuk geroago, ordea, errugabea zela frogatu zen. Askatua izan ondoren, gizon zaharra auzitara eraman zuen, bidegabeki akusatzeagatik.

Auzitegian, adineko gizonak epaileari zera esan zion: *"Inori kalterik egiten ez dioten iruzkinak izan ziren, besterik ez"*.

Epaileak hauxe erantzun zion gizon zaharrari: *"Idatz ezazu paper batean berari buruz esandako guztia. Ebaki papera zati txikitari, eta etxerako bidean, bota itzazu paper pusketa horiek zure autoko leihatilatik. Bihar, itzul zaitetz hona, epaia entzuteko"*.

Biharamunean, epaileak zera esan zion gizon zaharrari: *"Epaia eman baino lehen, zu paper zatitxo guztiak biltzera joatea nahi dut"*.

Agureak esan zuen: *"Ezin dut horrelakorik egin! Hai-zeak leku guztietara barreiatu zituen eta ez dut jakiterik non dauden"*.

Orduan, epaileak hauxe esan zion: *"Era berean, hitz eta iruzkin xumeek hondatu ahal dute pertsona baten ohorea, halako moduan, non ezinen baitu berreskuratu. Norbaiti buruz ezin baduzu ongi hitz egin, ez esan deus ere. Izan gaitetzen denok gure ahoen jabeak, honela ez gara izanen gure hitzen esklaboak. Esamesak lapurrak baino okerragoak dira, beste pertsonaren duintasuna, ohorea, izen ona eta sinesgarritasuna lapurtzen dituztelako. Zure oinek irrist egiten dutenean, beti berreskuratu ahal duzu oreka, baina zure mingaina irristatzen denean, behin ere ezinen dituzu zure hitzak berreskuratu"*.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz.

GOAZEN HARANEKO ETORKIZUNA ELKARREKIN MARRAZTERA!!!

Zuengana zuzentzen gara, baserritar, ekoizle, dendari, tabernari, landetxe...

Araitzen lan eta bizi batzordea, ibarreko etorkizunaz arduraturik lanean gabiltza, eta zuengana jotzen dugu, zuen ideiak eta asmoak jasotzeko.

Baserriarekin lotutako ekoizpen jasangarriak, turismo jasangarria, langile autonomoak, landa-turismoak, denda txikiak, bertako gizartea... Hau guztia badugu eta mantendu eta hobetzea gure eskuetan dago.

Zure iritzia eta ikuspuntua, oso baliagarria dira, horregatik Araitzen lan eta bizi batzordea, Cederna Garalur, eta Araizko Udalaren laguntzarekin, martxoaren 21ean, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era Araizko liburategian egingo dugun hausnarketara gonbidatzen zaitugu.

Elkarrekin bideratu dezagun gure etorkizuna!!! Zure zain gaude!!!

Araitzen lan eta bizi batzordea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ekin
rotulación
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789
Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonia eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza



- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Juan Cruz Martirena.
- 06 ELKARRIZKETA: Igor Legarreta
- 09 NOR DA NOR?
- 10 MOKOKA
- 11 KUXKUXEAN: Martxoko zorion agurrak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 16 ERREPORTAJEA: Psikologia perinatala.
- 20 KULTURA
- 22 ELKARRIZKETATXOA: Larraun Berdintasunean.
- 24 KIROLA
- 26 HITZ ASPERTUAN
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Euskaraldia, 11 egun euskaraz.
- 30 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Iñigo Oreja, Mikel Huarte, Nerea Navarro. Patricia Roncallo, Ricardo Bosch, Rafa Etxarri, Idoia Igoa, Larraun Berdintasunean, Nicolás de Assas eta Topagunea.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitx Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra





eskolatik
mailopera

Amesten hastera goaz

Ibarberrin ez dugu ametsak ihes egi-
tea nahi. Harrapatu nahi ditugu, on-
doren eskolan egia bihurtzeko. Guk
familien ametsak eta nahiak jaso nahi
ditugu. Horretarako, egunotan amets
harrapatzaileak egiten ari gara, eta
berhala izango dituzue esku artean,
etxean.

Eskolan emozio handiz bizitzen
ari gara Ametsaren Fasea. Eta zer da
hori? galdetuko du norbaitek. Ikas
Komunitateen bileretara etorri diren
familia guztiak ongi dakite Ibarberri,
Ikas Komunitate izateko prozesuan
dela. Duela urte batzuk hasi ginen
gure eskola eraldatu nahian. Oraindik
ez genekien zein forma eman nahi
genion, baina konturatu ginen in-
guruko beste eskola batzuekin zen-
bait gauza komun genituela. Guk

eskola ireki egin nahi genuen, bizibe-
rritu, indartu eta familien eta komu-
nitate osoaren parte hartzea bultza-
tu. Eta horren bila, Ikas Komunitateak
topatu genituen. Lehenik klaustroak
eta ondoren eskolako gurasoek, argi
berdea eman diote bizitzen ari garen
prozesu aberasgarri bezain itxaro-
pentsu honi.

Orain AMESTEN hasteko garaia
da. NOLAKO ESKOLA NAHI DUGU?

Denon nahiak, ametsak eta go-
goak bildu nahi ditugu. Horregatik
egin ditugu amets harrapatzaileak.
Horien bitartez, zuen ametsak adie-
razteko eta argi eta ozen azaltzeko
aukera duzue.

Egin dezagun, bada, amets!

3. Maila A

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**aseguru
gintza
XXI**

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
antonio.carraro@nekazarisl.com
nekazarisl@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



LANGILEAK PARLAMENTUAN

Beteluko AMAVIR egoitzako langileak Nafarroako Parlamentuan izan ziren joan den hilean bizi duten lan-gatazkari konponbide bat bilatzeko eskatuz, Nafarroako Gobernuak ere egoerari konponbidea emateko zerbait egin dezakeela uste baitute.



BETELUKO OBRAK

Amaitu dituzte Betelun azken hilabete honetan Udalak kudeatutako lanak. Dagoeneko, hilerriak bere pasabidea eta bere aparkalekua du, ur-biltegirako sarbidea egin da eta eskolaren atzealdeko saneamendua eta zolaketa lanak bukatu dituzte.



BARRIKOTEA

Matxoak 17 Beteluko ostatuan barrikotea izanen da. Bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin, txuleta eta gazta izanen da afaltzeko irasagarrarekin eta intxaurrekin. Afarian zehar trikitilariak izanen dira eta ondoren musika izanen da goizaldera arte. Txartelak dagoeneko salgai daude ostatuan bertan. Hartu zurea bukatu baino lehen!

bertso berriak Mailoperi jarriak: Juan Cruz Martirena (Uitzi)

*Inauteritan aurten
mozorro polita
peluka buruan ta
maskara jantzita
ezautzeko zaila
beiratsen hasita
itxura aldatzeko
aitzakia baita.*

*Festarako giroa
musika ta **dantza**
mozorroa gainean
pailazoan **antza**
txarangan erritmora
kantu ta **arrantza**
pasa dira aurtengoak
kendu dut **arantza**.*


Doinua: Pasaiaiko herritik.

Mikelentzako puntua:

Aste Santua ondoren Aberri Eguna.

Oinak:

Eguna, duguna, askatasuna, elkartasuna.



“Ez da ETari buruzko pelikula bat”

Igor Legarretak zuzendutako lehenengo film luzea da “Cuando dejes de quererme”. Bestek beste, Flor Torrente, Miki Esparbé, Eduardo Blanco eta Eneko Sagardoi aritu dira aktore lanetan. ETaren hasierako urte haietan landu ditu Legarretak, maitasuna, heriotza, biolentzia eta errua thriller honetan. Filma Euskal Herriko hainbat txokotan grabatu duten arren, eszenarik garrantzitsuenak gurean grabatu zituzten, Aldatzen.

Bilbotarra zara jaiotzez, baina egun Iruñean bizi zara Igor...

Beti bilbotarra naizela esan izan dut, baina Leioan bizi izan naiz beti eta bertako fakultatean ikasi nituen Arte Ederrak.

Eta noiz hasi zinen ikus-entzuzkoen munduan lan egiten?

Orain dela pila bat, fakultatean bertan film motz gutxi batzuk egin nituen eta gero, 1998an, Emilio Perezekin batera zinerako lehenengo film laburra egin nuen. Orain dela hamalau urte Iruñera etorri nintzen bizitzera. Baluarten eszenatokiko teknikari gisa hasi nintzen lanean eta aldi berean film motzak eta film luzeren bat egin nituen...

Baina hau izan da zuzendu duzun lehen film luzea...

Bai, zuzendari gisa hau izan da nire

“Krisialditik ateratzeko kultura eta ikerketa zientifikoak behar ditugu”

lehenengo film luzea, nahiz eta gidoi pare bat idatzi izan ditudan, esaterako, Gabi Ibañezen *Autómata* pelikula eta kasu horretan pelikulako bigarren unitatea nik zuzendu nuen.

Eta film luze hau zuzentzeko aukera nola sortu zen?

Asier Guerricaehebarría, Ion Iriarte eta Javier Echánizena da gidioa, hirurak bilbotarrak dira eta ezagunak nituen. Momentu hartan justu proiekturik gabe nengoen eta Echánizek aipatu zidan gidoi interesgarri bat zutela, baina oraindik ez zuela zuzendaririk. Gidoia irakurri eta oso ona iruditu zitzaidan, pertsonaiak oso onak ziren, doinu ezberdinak zituen eta pertsonalitatea zuen. Lauraren historia kontatzen du. Laurak uste zuen bere aitak ihes egin zuela, baina bere gorpua agertzen denean konturatzen da norbaitek hil zuela. Orduan, bere aitaordearekin Argentinatik Euskal Herrira bueltatzen da zer gertatu den jakiteko. Protagonista bi aiten amodioaren erdian aurkitzen da eta hori da bere gatazka, maitasuna nola banatu ez dakiela. Hori da historiaren bihotza eta oso gai polita iruditu zitzaidan lan egiteko.

Dena den, ez da izan egun batetik bestera ekoiztutako lana...

Orain dela sei edo zazpi urte irakurri nuen lehenengoz gidioa. Tartean, “*Autómata*” filma egin zen, aita izan naiz... Luze joan da prozesua, luzeegi, baina ez gara sei edo zazpi urtez buru-belarri horretan aritu. Diru-laguntzak lortu eta dena lotzeak



Bizkaitarra izan arren, gaur egun Iruñean bizi da Igor Legarreta. Arg: Labrit.

luzatu egin zuen dena. Esaten dute Hollywoodean film bat egiteko batez besteko denbora bost urte direla, gidoia idazten denetik estreinatzen den arte, beraz, ez gabiltza horren gaizki, hala ere, espero dut hurrengo motzagoa izatea.

Otsailaren 16an estreinatu zen... Zein zinema aretotan dago ikusgai?
Grabaketak batez ere Donostialdean egin ziren eta Donostiako zinemetan ez dugu filma eskaintzerik izan, hala ere badago aukera Errenterian, Durangon, Bilbon, Lizarran, Gasteizen eta Iruñean, Golem Yamaguchin dago ikusgai.

Zer moduzkoak izan dira orain arte jaso dituzun kritikak?
Orokorrean nahiko onak izan direla esango nuke, baina denetarik dago.

Garrantzi handia dute zuretzat kritikak?
Ez. Adibidez "Autómata" filma Donostiako Zinemaldiko atal ofizialean egon zen eta oso kritika txarrak jaso zituen. Izugarri kezkatu nintzen, baina konturatu naiz kritikariak oso bereziak direla eta askotan galduta dabiltzala. Gertatzen dena da jende askorentzat garrantzitsuak direla eta kritikariak lan oso ona ez dela esaten badu agian jende asko ez da ikustera joango. Nik kritikak irakurtzen ditut eta askotan badirudi beste film bat ikusi dutela eta nahiz eta gustatu kritika oso txarrak egiten dituzte. *Deian* adibidez nahiko kritika epela jaso dugu, *Garan* ez da agertu ere egin eta EITBren adibidez oso gutxi agertu da, noski ez dugulako Euskal Telebistaren laguntzarik jaso. Eta penagarria da gidoilariak bilbotarrak izanik, zuzendaria ere bertakoa, historia oso euskalduna da, batez ere Euskal Herrian grabatu dute, aktoreen taldea euskalduna. Euskal



Otsailaren 16tik filma ikusgai dago zinema aretoetan.
Arg: Nicolás de Assas.

zinea egin dugu, baina ez dugu Jaur-laritzaren eta ETBren babesik izan. Televisión Españolaren eta Kultura Ministerioaren laguntza jaso dugu soilik.

Beraz, ez da erraza diru-laguntzak lortzea...
Oso zaila da, oso diru gutxi dago eta proiektu asko daude pelikulak egiteko, dokumentalak egiteko... Murrizketekin, geroz eta diru gutxiago dago zinea egiteko. Krisia etorri zen eta zer egiten du gobernuak? Kulturara eta ikerketa zientifikora bideratutako laguntza kendu. Nire ustez, alderantziz behar luke, gizartea bultzatu eta krisialditik ateratzeko kultura eta ikerketa zientifikoak behar ditugu.

Pelikulako zenbait eszena Aldatzen grabatu zenituzten...
Bai. Egia esan, Euskal Herriko bira egin dugu. Gehien bat Donostialdean grabatu genuen, Donostian, Irunen, Deban, Urkiolan, Bilbon, Araban ere izan ginen eta Nafarroan, Altsasu ondoko errepideetan grabatu genituen autoz egindako bidaiak eta errepide ondoan izandako eztabaida bat. Eta Aldatzen harrobian eta



Flor Torrente protagonistaren paperean . Arg: Nicolás de Assas.

"Kritikak irakurri eta askotan badirudi beste filme bat ikusi dutela"

“Pelikulan dena heriotza horren bueltan gertatzen da eta harrobiak huts hori transmititzen du”

inguruko basoetan grabatu genuen. Bertan oso eszena garrantzitsua gertatzen da. Han norbaitek Lauraren aita hil zuen, harrobi ondoko basoan. Guri oso ideia polita iruditu zitzaigun heriotzaren ondoan huts handia izatea.

Harrobiak esanahi metaforikoa du...

Hori da! Protagonistak huts handi bat du bere barruan, bere aitaren falta. Pelikulan dena heriotza horren bueltan gertatzen da. Eta harrobiak huts hori transmititzen du, lurrari kendutako zatia.

Eta zergatik aukeratu zenuen Aldazko harrobia? Aurretik ezagutzen al zenuen?

Bai. Hamalau urte daramatzat hemen bizitzen eta tarteka Aldatzera joaten gara. Oso paseo polita da, harrobira joan etorria egin eta gero herriko ostatuan bazkaldu izan dugu behin baino gehiagotan.

Zenbat egunez aritu zineten bertan?

Bi edo hiru egunez aritu ginen han grabaketa lanetan. Neguko egunak nahi genituen, lainoa eta euria. Aldatzen gau oso bat grabatzen eman behar genuen eta eguraldiak euria egingo zuela aurreikusten zuen. Gogoan dut argazki zuzendariarekin batera iluntzeko zortziak aldera iritsi nintzela herrira eta oso eguraldi ona zegoen, zerua garbi-garbia. Grabatzen hasi eta gaueko hamabiak aldera

euria hasi zuen eta etengabe egin zuen goizeko zortziak arte. Gogorra izan zen, gauez, mendian, euria, hotza, argirik gabe, grabaketaren tentsioarekin. Ez zait ahaztuko gau hura. Baina oso polita gelditu zen, sekuentzia guztiak euriarekin eta gainera, dohainik.

Diktadura garaiko Euskal Herrian dago giroturik, baina pisu gehiago du drama familiarak politikak baino, ezta?

Kritikari batzuek diote pena dela pelikulan politikaren gaian gehiago ez sakontzea. Baina hori beraiek nahi duten pelikula da. Egia da, testuiguru soziopolitiko hori baduela, fikzioa izan arren, badu kolore politiko hori. Diktadura garaian gertatzen da eta biolentzia horren erdian dago aita, Eneko Sagardoiren pertsonaia. Baina esaten dudanean ez duela oso ikuspuntu politikoa esan nahi dudana da ez dela ETari buruzko pelikula bat, nahiz eta agertzen den, biolentzia, ETA, diktadura, Guardia Zibila... Egin dira eta egingo dira ETari eta diktadurari buruzko pelikulak eta beharrezkoak dira, baina ez da kasua.

Emaitzarekin pozik, beraz?

Bai, oso esperientzia ona izan da. Orain promozioa bukatzerakoan eta behin pelikula albo batera utzi eta gero beste bi film luze ditut eskuartean. Horietako bat Nafarroan grabatuko dugu, beraz, pozik nago.



Aldazko harrobian eta inguruan grabatu ziren filmaren zenbait pasarte. Arg: Labrit.

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Beteluko inauterietakoa da. 1982. urte inguruan ateratakoa da eta mozturorik joateak identifikazioa zaildu egiten du. Bi horiek nortzuk izan daitezkeen ikertzen ibili garen arren, ez dugu lortu ziurtasun osoz zein diren argitzea. Horregatik misterioa argitzeko oraingo hone-tan beharrezkoa izango dugu zuen kolaborazioa. Nortzuek osatzen dute bikote hori?

Erantzunak hurrengo alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!

nor da nor?

Nor da Nor?



Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

IORTIA LIJINDITZEA | HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SK **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

Hobi komunak



●● Mikel Hernandez



●● Andrea Etxarri

Kaixo, Andrea!! Gaurkoan duela hamarkada batzuk Nafarroan eta, oro har, Euskal Herri osoan Gerra Zibilak utzitako errealitate gordin bezain lazgarri batekin nator: hobi komunak. 1936 – 1939 bitartean bando nazionalak, nahiz eta berez Nafarroan, mugarik ez egon, sekulako saraskiak egin zituen.

Lekunberrin eta Larraunen, ez da hobi komunik aurkitu. Ahozko testigantza batzuei erreferentzia eginez, bazen Zacarías izeneko gizon karlista bat, jende askoren bizia salbatu zuena. Baina Nafarroako jende askoren patua ez zen hain zorteduna izan. Urbasa, Etxauri, Ezkaba, Erribera, Iruñea, Sartaguda (alargunen herria ere deitua)... Leku asko dira beraien familiako kideak oraindik ere aurkitu ez dituztenak, eta benetan errealitate oso bortitza da. Hala bada, Aranzadi elkar-tea, Pako Etxeberria buru duela, izugarritzko lana egiten ari da memoria historikoa berreskuratzeko lan horretan. Era berean, Iruñean, urte askotan errealitate hau ahaztua izan da, eta politikari batzuek ez ikusiarena egin badute ere, pixkanaka pausoak ematen ari dira: Askatasunaren Plaza, duela gutxi arte Conde de Rodezno zen plaza beharrez; Lezkairun, Gerra Zibilean, Larragako zen eta hamalau urterekin bortxatua eta eraila izan zen Maravillas Lambertori eskainitako plaza; edota Osasunaren kofundatzailea eta eraila izan zen Eladio Zilbetiri eskainitako kalea, Sadar futbol zelaiaren ondoan.

Nire ustez, Andrea, oraindik ere lan handia dago gai honetan eta, nahiz eta askori ez zaien oso erraza egiten errealitatea den bezalakoa kontatzea, pertsona hauek guztiak errekonozimendu bat behar dutela uste dut, dudarik gabe. Zentzu honetan, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren lana izugarria izaten ari da, nahiz eta askoren trabak oraindik nabarmenak izan. Benetan hausnartzeko moduko gaia dela uste dut. Zuk nola ikusten duzu, Andrea, Memoria Historikoaren gai hau?

Mikel! Zer moduz? Egia esateko aipatu dituzun kasuak ezagunak ditut prentsan entzun edo irakurri izanagatik, hala ere gai honetan ez nago oso jantzia eta nire iritzia emango dizut dakidan gutxi horretatik.

Alde batetik, eta logikoa den bezala, guztiz alde nago garai horretan edo beste edozeinetan gertatutako saraski zein momentu latz eta mingarriak gizarte moduan ezagutarazi eta onartzearekin. Ez du zentzurik hainbeste jende pairatu duen min hori ukatzeak. Gertaera haiek gertatu ez balira bezala egin eta begiak ixteak. Gainera, ez bakarrik erail zituzten pertsona haienganako errespetuagatik, baizik eta bizirik geratu diren familiako kide, lagun edo gertuko horientatik. Familiako kide bat galtzeak min ematen du bere horretan, gehiago egoera horietan gertatu bada, eta are gehiago oraindik haren gorpua ere aurkitzeko aukerarik ez izateak.

Aspektu honetan landu beharreko zerbait dela iruditzen zait, gizarte bezala modu osasuntsu batez aurrera egin dezagun.

Gainerakook beraiek sentitutako mina ukatzeak min gehiago eta banaketa sakonagoa baino ez luke ekarriko. Elkar ulertze eta laguntze bide horretan egiten dugun edozein ekintzak balio handia dauka nire ustez. Gure gustukoagoak edo ez hainbeste izan daitezke, baina helburua bestea ulertzea eta egoera gordin hori gaintzen bidelagun izatea bada, aurrera!

Esan bezala, Memoria Historikoa lantzeko ekintza ezberdinak bururatu zaizkie gizarteko eragile ezberdinei. Hauetako bat oroitzapen moduko plakak edo kale/plazei zenbait pertsonaren izenak jartzea izan da. Luzaro hausnartu ondoren eta gizakiok positiboan gidatuz hobe "funtzionatzen" dugula ikusita, hauek aukera egokiena diren zalantzan jarri dut. Momentuan gertatutakoa onartu eta pertsona horiek laguntzea behar bat da, baina lagunduko al du momentu horiek aldiro birgogoratzea gizarte bezala aurrera egiteko momentuan?





Edurne Erro
 Martxoak 31.
ZORIONAK EDURNE!!!
Oso egun polita pasa!!!
Muxu bat zure kuadrillaren partez.

Jesus Altuna
 Martxoaren 24an, 64 urte.
Zorionak atte ta attuna!! Ongi pasa zore eune! Muxu haundie etxeko guztin partez!



Mertxe Cruz Liciaga
 Martxoak 18.
Zorionak Mertxe, Atalluko familiaren partetik.
Zu bezalako egun polita pasa!



Uxue eta Yanua Lourido
 Martxoaren 10ean 8 urte eta 22an 10 urte.
Zorionak bikote!! Oso ongi pasa eguna eta muxu handi bat etxekoen partez.



Iraide Aldaregia Balda
 Martxoak 28, 4 urte.
Zorionak politte!!!
Oso ongi pasa zure egunean eta muxu bat famili guztiaren partez!!

Iker Hernandorena Irisarri
 Martxoaren 24an, 10 urte.
Zorionak Iker!
Muxu handi bat etxekoen partez eta ondo pasa!



Jokin Mitxeltorena eta Bittor Esnaola
 Martxoaren 3an eta martxoaren 12an, 4 urte.
A ze bihurri pare! Ongi pasa zuen egunean.

Jokin Mitxeltorena Eskamendi
 Martxoaren 3an, 4urte.
Zorionak Jokin!! Ongi pasa zure egunean eta segi horren alaitsu. Muxu bat aita, ama eta Manexen partez.



Unai Amoztegui Goikoetxea
 Martxoak 12, 2 urte.
Zorionak pottoko!!! Bi urte ja... Ongi pasa eta muxu potolo bat familia guztiaren partez!!!



Lander Flores Eskamendi
 Martxoaren 30ean, 9 urte.
Zorionak Lander!!!
Ongi-ongi pasa zure eguna. Muxu haundi bat etxekoen partez.
Narrea, Ibai, ama eta aita.




Irune Saralegi
 Martxoak 6, 10 urte.
ZORIONAK gure printzesa handiari!! Irribarre polit hori ikusi dezagula beti. Muxu potoloak Gaintzatik eta Lekunberritik. Aitaxo, amaxo, Ekine eta Lekunberriko lagun partetik.



Bittor Esnaola Sotil
 Martxoak 12, 4 urte.
Zori Zori Zorionak Piztu itzazu kandelak!!!
Muxu handi bat pottoki!!!
Aita, ama eta Peru.

Aner Otermin Iriarte
 Martxoak 7, 3 urte.
Zorionak Anerxto!!!
Gure etxeko piratak 3 urte betetzen ditu.
Ondo pasa zure eguna. Muxu pottolo bat Arribeko familien partez, bereziki Elene eta Danelen partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.
 Fiskala
 Laborala
 Kontabilitatea
 Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
 BETELU
 948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
 ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

MARTXOAREN 24AN JOKATUKO DA SATORZULOKO FRONTENIS TXAPELKETA

Sartzuloko V. Frontenis Txapelketa jokatuko da martxoaren 24an Betelun. Urtero bezala sariak izanen dira finalera iristen diren bikoteentzako. Txapel-dunek 300 euro, txapela eta Aitzberri ile-apaindegiko 25 euroko bi bonu jasoko dituzte opari. Bigarren postuan sailkatzen den bikotearentzat aldiz, 150 euro, garaikurra eta Aitzberri ile-apaindegiko 15 euroko bi bonu izanen dira. Semifinalistek afaria izanen dute Beteluko tabernan eta San Miguel edaritegian. Eta gainera, haraneko lehen bikotearentzat Maite harategiko produktuen saskia.

Kamiseta eta anoa jokalarri guztiei eskainiko zaie. Martxoaren 19an amaituko da izen emateko epea (671 083 622).

LUZIA PEÑA, BERRIRO ERE, TAULA GAINERA IGO DA

Joan den otsailaren 17an eta 18an "Hamelingo Txirularia" obra estreinatu zuen Nafarroako Ganbera Operak Baluartén. Bertako kide da Luzia Peña lekunberriarra eta beste behin taula gainera igo zen. 2016ko abenduan parte hartu zuen lehenengoz Iñigo Casaliren "Alí Babá y los 40 ladrones" lanarekin Baluartén bertan eskaini zuten ikuskizunean. Geroztik Bilboko Arriaga Antzokian ere izan da. "Hamelingo Xirularia"-ren obra Iñigo Casali moldaketa bat izan zen eta Nafarroako Ganbera Operan abestu ohi duten heldu nahiz haurrek parte hartu zuten.



ALTSASUKO GURASOEN BIRA

2016ko urriaren 15ean Altsasuko taberna batean bertako gazte batzuen eta Guardia Zibilaren artean izandako liskarraren ondorioz, 375 kartzela-urte eskatu dituzte gazte horientzat gertakariak terrorismo delitutzat kalifikatu dituztelako; horietako hiruk gainera, prebentziozko presondegian 470 egun baino gehiago daramat Madrillgo hainbat espetxetan.

Larraunen Altsasukoak Aske taldea sortu da eta euren ustez, nabarmentzekoa da Barne Ministerioko iturrien arabera 9.571 atentatu kasu kontabilizatu zirela 2016an eta horietatik, terrorismo atentatu gisa kalifikatu den lehenengoa eta bakarra Altsasukoa izan dela.

"Denbora tarte luze honetan oinarrizko hainbat eskubide urratu dira, hala nola: errugabetasunaren printzipioa, epaile naturala eta inpartziala izateko eskubidea eta, besteak beste, defentsarako eskubidea. Abokatuak salatu dute instrukzio epaileak akusazioaren bertsioa baino ez duela aintzat hartu. Horrez gain, ez du egile neutral batek egin akusazioaren txostena, kausan parte duen Guardia Zibilak baizik."

Nafarroako Probintzia Auzitegiak elegitea ebatzi eta kaleratutako autoan adierazi zuen 'ez zegoela arrazoizko zantzurik ustezko terrorismo delitua gertatu zela ondorioztatzeko' eta epaiketa Nafarroan egi-tea eskatu bazuen ere, Auzitegi Nazionalean izango



da ahozko epaiketa, aurtengo apirilaren 16an.

Euren seme-alaben egoera azaltzeko 'Altsasu Gurasoak' plataformak bira bat hasi du. Larraunera martxoaren 10ean etorriko dira eta Lekunberri auto-ilara batekin zeharkatuko dute.

Hori dela-eta, Larraungo Altsasukoak Aske taldeak dei egin die herritarrei 10:30ean Lekunberriko Herriko Plazan eginen den sinadura bilketan eta ilarari eginen zaion harreran parte hartu eta ibilbidean zehar elkartasuna adierazteko.

MARTXOAREN 8AN, EMAKUMEOK PLANTO!

Oraindik ere asko dira emakumeen eta gizonezkoen artean gure gizartean gertatzen diren desberdintasunak, soldatetan, lanean, etxean eta kalean. Gurean adinekoren eta ezinduen zaintza oraindik ere emakumeen eskutan dago eta beste hainbat lanbide ere genero bati edo besteari lotuta doa.

Emakumeen Nazioarteko Eguna izanen da martxoaren 8an eta sindikatu eta eragileek emakumeei greba eskubidea egikaritzeko deialdia egin diete. Joan den hilean Larraun Berdintasunean taldeak antolatutako bilkura egin zen Lekunberrin eta ibarreko hainbat herritar eta eragile bildu ziren gaia lantzeko asmoz.

Larraun Berdintasunean taldeko kideek martxoaren 8an greba egitera animatzen dituzte gure eskualdeko emakumeak. Bi geldialdi aurreikusten dituzte, goizean 11:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean 18:00etatik 22:00etara. Bestetik, asko izanen dira egun horretan beste behin euren etxeetatik edo lantokietatik atera ezin direnak, horiengan pentsatuta ere, euren eskubideen nolabaiteko aldarria egin dezaten mandarrak edo zapi moreak leihoetan zintzilikatzea proposatzen da.

Martxoaren 8an hainbat elkarretaratze egingen dira gurean. Eguerdiko 12:00etan Araizko udaletxearen aurrean elkarretaratze egingen dute eta eguerdiko 12:30ean Beteluko aparkalekuan. Larraundarrak ere elkartera deituta daude eguerdiko 12:00etan Lekunberriko udaletxe aurrean. Ondoren, Mendukilon hamaiketako eskainiko da eta bisita berezia egingen da kobara. Arratsalderako berriz, autobusa antolatu da Iruñean arratsaldeko 20:00etan izanen den mobilizaziora joateko. Autobusa 18:30ean irtengo da Lekunberritik eta beharrezkoa izanen da aurretik izen ematea hurrengo telefono zenbaki hauen bitartez: 948 604 582 edo 680 542 826. Horrez gain, hilabete osoan zehar hainbat ekimen egingen dira gurean (Ikusi Agenda 31. orrialdean).



MAILOPEK BERE WEBGUNEA IZANEN DU AURKI

Joan den hilean Mailope aldizkariko urteroko bazkide batzarra izan genuen Beteluko Indianoetxean. Iazko balorazioa egin genuen eta urte honetarako ditugun aurreikuspenak aztertu genituen besteak beste. Gainera, aurki martxan izanen dugun webgunea ere aurkeztu genuen.

Bertan, kaleratzen goazen aleak eskura izateaz gainera, hilabeteroko ekimenen argazki galeria, edukiak bidaltzeko aukera izanen duzue besteak beste. Blogarien atal bat ere izanen du. Beraz, animatu!

BERTAKO KORRIKALARIEI BURUZKO HITZALDIA

Burlatako Ricardo Gurbindo idazleak Nafarroako, baina batez ere Aralar azpiko korrikalariei buruzko liburua kaleratu berri du "Andarines y korrikalaris navarros" eta Lekunberriko Legoaren 30. urteurrena aprobetxatuz, hitzaldia eskainiko du gurean. Martxoaren 23an izanen da hitzordua, arratsaldeko 19:00etan, Mitxausean.

Gure sustraien itzal

Zenbatetan egin dion ihesi errealitateari. Zenbatetan ito den ametsetan. Oroitzapenetan igeri, familiako baserrira joatea erabaki zuen azkenik. Aitona-amonen etxea izandakoa, izeba-osabena eta aitarena. Aita hil zitzaionetik ez zen bertaratzen ausartu.

Horrenbeste gustatzen zitzaizkion neguko egun batean izan zen, hotzak eta eguzki izpiek bat egiten duten horietakoa. Prest zegoen. Bi urteren ondoren bere sustraiak ere badirenak sentitu nahi zituen berriz. Bi urte luzez bidaia bera egunero buruz egin ondoren, autoa hartu eta denborak urratu ez zuen ibilbidea jarraitu zuen.

Etxeko ate aurrean gelditu zen. Sekula nabaritu gabeko bibrazio, usainak, oroitzapenak... etorri zitzaizkion burura. Sentipen berri bakoitza aztertzen, sufritzen, disfrutatzen gelditu zen une batez.

Egurrezko atari zaharra zeharkatzeak hotzikara eragin zion. Begiak itxi zituen momentu hartan. Egur errearen usaina gogoratu zuen, txokolate beroarena, mami egin berriarena... Sekula ez zen jabetu usaimenak oroitzapenetan duen indarraz. Malko bat jauzi zitzaion.

Begiak ireki eta etxe osoa miatzeko ahaleginak eginen zituela zin egin zion bere buruari. Urteak aurrera egin arren, denak berdin jarraitzen zuela ikusteak lasaitu egin zuen. Altzariak bere tokian jarraitzen zuten. Inork ez zituen ukitu *amonia* aspaldi jarritako argazkiak. Inork ez zituen ohatzeetako maindire eta edredoiak ukitu. Aitaren logelak be-



Arg: Unsplash.

rak utzi bezala segitzen zuen. Logelako apaletan, Nafarroako geografia eta historiari buruzko liburuak ere hantxe zeuden. Tarte batez ohatzean eserita gelditu zen. Mesanotxean zeuden soldadutza garaiko argazkiak ikusten igaro zituen minutuak.

Azkenik sukaldean sartu zen. Amona ikusi zuen erradiadore ondoan eserita, attunak esnea berotzen zuen bitartean. Atte telebista aurrean, eguerdiko bertso saioa ikusten. Sukaldea zen etxeko gelarik zailena, oroitzapen gehien gordetzen zituen.

Sabaira begiratu eta arrakala handi bat ikusi zuen. Norbaitek, orduan, bihotzean laban bat sartu zion. Inoiz ez bezalako amorrua,

mina, tristezia sentitu zituen. Urteek baserrian eragindakoak konponduko zituela esan zion bere buruari.

Harro zegoen, eta horrek negargura eragin zion. Harro bere sustraiengatik. Harro bertan bizi eta ikasi zituen bizipenengatik. Harro bisita horrek berarengan sekula hilko ez den zerbait piztu zuelako. Aitarena izan zen etxea, bere sentitu zuen. Orainak eta iraganak bat egin zuten. Baserri horrekiko zuen lotura indartsua zen oso.



Bikotean arazoak daudenean

Berriki amoranteen ospakizuna izan da, San Balendin eguna. Egia esan, bikote harremana ongi dagoenean, gozatzeko eta eskertzeko da. Zorritzarenez, maiz ez da horrela izaten. Lehengoan Aitor etorri zen. Badira zortzi urte Mikel bere bikotekidearekin bizi dela, baina ez da gustura sentitzen, ez du maitasunaren sua bere bihotzean sentitzen eta, sarritan, harremana uztea planteatzen dio bere buruari. Aitor ez da zoriontsu eta etxetik kanpo beste arazo batzuk baditu ere, bikotean bizi duen egoera uste du bere egon-ezaren iturria dela. Egia esan, bien arteko harremana ez da bat ere gozoa. Maiz, eztabaidak eta liskar txikiak izaten dituzte eta kostatzen zaie ados jartzearabakiak hartzean. Gainera, sexua, aspergarri samarra bihurtu da, eta asteburu zein jaietan plan gutxi egiten dituzte elkarrekin. Bakoitzari, bere aldetik gauzak egitea gustatzen zaio, itxuraz, bikote harremana astuna egiten zaie, batez ere Aitorri. Mikel ez du zalantzarik, berak segitu nahi du harremanarekin aurrera. Hortaz, Aitorrek erabakitzen du bere burua lantzea kontsultan.

Kasu honetan, Aitorren aitak tratatu txarrak ematen zizkion amari eta hiru semeekin gogorra zen oso. Egoera latz honi bukaera emateko, ama dibortziatu egin zen aitarengandik eta beste leku batera joan zen bizitzera semeekin. Dibortzioa ez zen samurra izan eta aitak, orduetik aurrera alde batera utzi zituen emazte ohia eta semeak. Gauzak horrela, aitak uko egin zion bere ardurak hartzeari eta amari ez zion diru-



rik pasa izan aurrerantzean. Gainera, semeak urteetan ez zituen ikusi nahi izan. Amak, ez zuen berriro beste bikotekide bat izan Aitor nerabea izan arte. Hortaz, ume garaian ez zuen bikote maitasunik ezagutu gurasoen artean. Kontsultara etorri zen bere bikote harremana ez zelako berak nahiko lukeen bezain ona eta laguntza nahi zuen harremana uzteko edo, hobetzerik bazegoen, aurrera egiteko.

Niregana horrela etortzen direnei lagundu egiten diet ikusten zer dagoen haien motxila psikologikoan, hori baita bikote harremanean jartzen dutena. Izan ere, bikotekidearekin arazoak baldin badauzkagu, sarritan, kide bakoitzaren arazo eta zailtasunen batuketa izaten da eta ez harremanaren arazoak.

Pentsatzen badugu gure bikotekidearekin dauzkagun arazoak harremana etetearekin batera amaituko direla, seguruenik ez da horrela izango eta berriz ere beste harreman batean murgilduko garenean, arazoak errepikatuko dira. Banatzea edo dibortziaztea, maiz, arazoetatik ihes egitea da. Horregatik, gure bikotekidearekin eduki ditzakegun arazoak nik aukera on bat bezala ikusten ditut. Aukera on bat, nire motxilan daukadana lantzeko, hobetzeko eta sendatzeko. Baina horrela ez badut egiten eta besteari edo bizitzari, besterik gabe, leporatzen badizkiot nire bikote-harremanaren arazoak, ez dut ezer konponduko harremana bukatzearekin eta berriz errepikatuko zaizkit. Gainera, seme-alabak baldin badauzkat eta lantzen baditut nire zailtasunak, haiekin harremana ere hobetuko dut eta izango naiz haietzako eredu nagusitzen direnean arazoan aurrean zer egin jakiteko.

Honek guztiak ez du esan nahi bikote harreman guztiak betirako izan behar dutenik. Maitasuna amaitateke eta errutinazko harreman aspergarri eta pobre bat eramatea baino hobea da, nire ustez, harremana amaitzea modu heldu batean. Bikote-harreman bakoitzak aberastu egiten gaitu era osasuntsu batean bizi badugu, alegia, libreaki eta maitasunean, baina horretarako geure burua lantzea oso lagungarri izan daiteke arazoak agertzen hasten direnean.



Psikologia perinatalak aztertzen dituen gazi-gochoak

Psikologia perinatalak haurdun gelditzeko saiaketak egiten diren momentutik hasita haurrak urtea betetzen duen arteko prozesu osoan pertsonak izan ditzaketen arazoak barne-biltzen ditu. Kolonbian jaioa da, Bogota hirian, baina hamalau urte daramatza Lekunberrin bizitzen. Patricia Roncallo psikologoa da, psikologia perinatalean aditua. Osasun arloan eta Euskal Herriko Unibertsitatean ikerketa proiektu batean dabil lanean.



Kolonbiarra izan arren, hamalau urte daramatza gurean bizitzen Patricia. Arg: Patricia Roncallo.

Asko dira amatasunaren eta aitatasunaren bidean sortzen diren arazoak eta emozio kontrajarriak, batzuetan guztiz normalak izan arren, beste askotan psikologikoki eragin bortitza dutenak, esaterako, antzutasunak, haurdunaldiak, erditzeak nahiz erditu ondorengoak eraginda sor daitekeen antsietatea, depresioa etab.

Patricia Gizarte Zerbitzuetan egiten zuen lan, Gipuzkoan, baina bere bigarren semea izan zuenean aldatu zuen bere lan esparrua. Patricia: "Erditzean esku-hartze handian egon zen eta momentu horretan nola sentitzen nintzen ikusita gaiari buruz ikertzen hasi nintzen eta konturatu nintzen psikologia perinataleko aspaldikoa zela hemendik kanpo ikerketa zeudela alor horren inguruan, nahiz eta hemen nahiko ezaguna izan".

Geroztik, formakuntza ezberdinetan parte hartzen hasi zen eta hain juxtu 2012an Psikologia Perinataleko Espainiar Elkarteak sortu zen. Espezialitate berria da, espainiar estatuko hiru unibertsitateetan soilik eskaintzen dena.

Azken urteotan gure bizi-ohitura aldaketek zuzenean eragin dute giza-kion ugalkortasunean. Eta horri gehitu behar zaio ama edo aita izateko adina geroz eta gehiago luzatzen ari garela. Ondorioz, asko dira laguntza bidezko ugalketa tratamenduetara jo behar dutenak. Bestalde, erditzeak edo erditzen ondorenak ere dakarren karga emozionalari aurre egitea ez da erraza. Patricia nahikoa esperientzia du gai horietan guztietan.

“Gaur egun ez dugu amatasun lagundurik, gure amonek zuten moduan”

Laguntza bidezko ugalketa tratamendua egiten ari diren emakumezkoak zein arazorekin joaten dira zure kontsultara?

Zuk nahi duzunean ama edo aita izateko zailtasunak onartu egin behar dira lehenik eta inoiz ez dugu espero funtzio biologiko horrek huts egingo duenik. Gero dolua etortzen da pertsona horrek zituen planak ez direlako betetzen eta zer egin erabaki behar du... Horrek guztiak karga emozional handia suposatzen du. Antsietate sintomak ager daitezke, estresa, zenbait pertsonarengan depresioa, arazoak bikote harremanean... Hori ez da beti gertatzen, baina prozesu horretan osasun emozionala oso gutxi zaintzen da.

Erditu ondoko depresioa oraindik ere gai tabua da?

Bai. Beti entzun izan dugu haurdunaldian eta erditu ondoren hormonek izugarri eragiten dutela, badirudi dena hormonen kontua dela. Eta ez dakigu behar bezala bereizten noiz dagoen emakume bat emozionalki sentibera guztiz normala den gauza izanik edo dituen depresioaren sintomak. Eta ezjakintasun horrek zaildu egiten du laguntza eskatzea.

Nola identifikatu ditzakegu depresioaren sintoma horiek?

Haurdunaldian eta erditu ondoren oso ohikoa da gorabehera emozio-



Informaturik egotea eta ingurukoen babesa izatea dira arazo emozionalak saihesteko gakoetako batzuk.
Arg: Unsplash.

nalak izatea. Egun batean poz-pozik sentitzea eta hurrengo egunean triste egotea nahiz eta arrazoirik ez izan. Hori guztiz normala da. Baina depresioa dugunean negar egiteko gogo hori, ondoez emozional hori konstantea da. Pertsona horiek zailtasuna izaten dute euren burua zaintzeko edo haurra zaintzeko, ezin-got duenaren sentimendua...

Eta zer gomendatu ohi duzu hori saihesteko?

Nire ustez informaturik egotea oso garrantzitsua da, jakin behar dugu hori gerta litekeela eta gertatzen dela. Estatistikek esaten digute hamar emakumezkoetik bik izaten dutela. Zenbateko esanguratsua.

Norberaren ezagutza emozionalaren ezagutzarik ez dugu eta berebiziko garrantzia du ohartzeak noiz gauden guztiz gaindituta. Emakumezko askok haurra jaio ondorengo lehen asteetan bakardadea sentitzen dute, etxeko lan guztiak, haurra eta gainerako eginbeharrak egitera ez dela iristen. Eta bikotea harremanean ongi antolatuz gero, eta laguntza izanez gero askoz ere eramangarriagoa da.

Haurdunaldian edo ondoren haurra galdu duten pertsonak ere joaten dira zure kontsultara...

Haurdunaldiaren lehenengo eta bigarren hiru-hilabetekoan maiz gertatzen dira heriotzak eta mai-



"El hueco de mi vientre" taldeko kideak. Arg: Javier Sesma (Diario de Navarra utzitakoa).

la txikiagoan baina erditzean edo erditu ondoren ere izaten dira kasuak. Familia horiek askotan dolu hori pasa behar izaten dute eta maiz agurtzeko inolako gorpurik gabe.

Halakoetan jendeak aurrera jarraitzeko esan ohi die, negarrik ez egiteko, gazteak direla eta beste bat izango dutela, hobe dela horrela gaixorik jaiotzea baino... Asmo txarrik gabe esaten diren gauzak dira, ezjakintasunetik esandakoak, baina min handia egiten dute. Erditu aurretik hildako haurrak orain gutxi aurretik leizalazioan ez ziren sartu ere egiten, ezin zitzairen erregistratu. Beraz, dolu hori isilean pasatzen dute, bakardadean, askotan bikotekidearekin ere hitz egin gabe.

Baina argi ikusi da emakume hauek jaio ez diren haur horiekiko sentitzen

duten lotura oso indartsua dela eta garrantzitsua da errekonozitzea eta fetu edo abortu deitzeari uztea. Lagungarria da haur horiei izena jarzea eta beraiei buruz hitz egiterako orduan izen hori erabiltzea eta bere oroitzapenak izatea.

Eta osasungintzan laguntza psikologikoa eskaintzen al da halakoetan?

Ez. Baina egia da ginekologo eta amagin taldeek geroz eta ahalegin handiagoa egiten dutela euren lana ongi egiten eta orain gutxi atentzio protokoloa aldatu egin dute. Adibidez orain haurdunaldian edo erditzerakoan haur bat hiltzen denean, familiari besoetan edukitzeko aukera ematen diote, bainatu, jantzi argazkiak atera, oinetako oinatzak izateko aukera... Gutxi badira ere oroitzapen horiek izatea garrantzitsua da eta familiako kideei behar bezala agurtzeko aukera ematen diezu, zure guraso, lehengusu edo lagun batekin egingo zenukeen moduan.

Bestalde, erditzeetan izandako esperientzia txarrek askotan traumak ere sortzen dituzte...

Bai. Batzuetan, erditzean gehiegi esku-hartu delako izaten da, emakumeak ez zuelako espero, edo ez zaiolako baimenik eskatu edo behar bezala informatu. Askotan emakumeak ez dira egoera horri aurre egiteko prestaturik egoten eta nahiz eta

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain



Aldatz
Nafarroa

948604607

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ.

erditzea ongi joan eta ginekologoak erditzea "normala" izan dela esan eta dena ongi atera dela esan, emakumeak oso bestela bizi izan du. Oso gai subjektiboa da. Erditzea emozionalki oso mingarria izan liteke, emakume horren izaeragatik, bere gorputzarekin duena harremanarengatik, iraganean abusuak jasan dituelako... Zesareak, episiotomiak edo tresnak erabiltzen direnean, nahiz eta amaren edo haurraren bizitza ez den momentu bakar batean arriskuan jarri, baliteke emakumezko horrek sentazio hori izatea, edo bere gorputza behin eta berriz urratu duten sentimendua eta horrek erditu ondoren sintoma ezberdinak sortu ditzake, baita estres postraumatikoa ere.

Eta kasu horietan zein da jarraitu beharreko bidea?

Oinarrizkoa da bere ingurukoak adi egotea, ama hori bakarrik ez egotea. Emakume horiek erditzea behin eta berriz kontatu ohi dute, batez ere gertaerarik traumatikoenak izan diren horiek. Estres postraumatikoa duten emakume horiei oroitzapen horiek etortzen zaizkie burura behin eta berriz, amesgaiztoak izaten dituzte... Askotan bikotekidea edo amona izaten da kontsultara deitzen duena, bere alaba edo bikotekidea ez duelako zoriotsu ikusten, kosta egiten

zaiolako haurra zaintzea, bere burua zaintzea eta erditzearen oroitzapenek ez diotelako atseden hartzen uzten. Kasu horietan garrantzitsua da laguntza bilatzea eta psikologia perinatalean aditua den profesional batengana jotzen badu askoz hobe, baina bila dezala laguntza.

Bakardadea errepikatzen duzu behin da berriz...

Gaur egun ez dugu amatasun lagundurik, gure amonek zuten moduan. Gizartean gertatzen diren aldaketek bultzatu gaituzte emakumeoi goizegi lanean hastera erditu ondoren. Deskonektaturik gaude komunitateko baliabideen sare informaletatik. Baliabide asko daude haurren zaintzarako, baina oso gutxi haurdunaldirako edo erditu ondorerako. Tuper batekin etxera datorren lagun hori falta zaigu edo etxea garbitzen lagunduko digun hori. Lehen gauza horiek oso ohikoak ziren.

Erruaren sentimendua ere hor egoten da askotan...

Bai, badirudielako haurrarekin zerikusia duen guztia bere errua dela, bere osasuna, bere ongizatea, bere izaera... Ezin gara erru horrekin bizi. Ama izan arren, haur horren bizitzako zati txiki bat baino ez zara. Uste dut erruaren zama astun hori gainetik kentzeko beharra dugula.

Informazio gehiago:
www.patriciaroncallo.com

El hueco de mi vientre sarea sortu da

Heriotza goiztiarren inguruan gizartean dagoen hutsari erantzunez, Nafarroan *El hueco de mi vientre* izeneko sarea sortu da.

Joan den hilean egin zuen elkar-teak aurkezpena eta Patricia Roncallo sare horretako kide da. Orain arte Nafarroan ez zegoen halako babes talderik eta hemendik aurrera hilabetero bilerak egingo dituzte. Hurrengo martxoaren 13an izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Patricia: *"Laguntza talde bat da. Nafarroako lau amak atera dute au-*

rrera eta oso pozgarria da. Aurkezpenaren egunean 50 pertsona elkartu ziren, horrek adierazten du interesa edo beharra badagoela. Beharrezkoa da halako baliabide bat izatea. Atentzio klinikoaz gainera gizarte mailan ere halako baliabideak behar direlako".

Bilera horietan esperientziak konpartituko dituzte, hitz egiteak eta ulertua sentitzea beti delako sendagarria. Bi orduko bilerak dira. Guztiz doakoak, baina aurrez izen eman behar harko da bilera bakoitzean parte hartu ahal izateko.

Patricia: *"Uste dut oso positiboak direla familien arteko topaketa horiek. Familia horiek bakarrik sentitu ohi direlako gizartean dagoen ezagutza faltagatik. Eta halako laguntza sare bat eskura izatea oinarrizkoa da. Horrez gain, kasuren batean esperientzia horrek erreakzio traumatikoren bat eragin dezake pertsona batengan, orduan atentzio psikoterapeutikoa behar harko du, baina familien arteko babes hori oso lagungarria da".*

HERRIZ HERRI

Inauteriz inauteri...

la astebururo izan ditugu inauteriak gure eskualdean. Lekunberrin, Al-datzen, Allin, Arruitzen, Baraibarren eta Betelun dagoeneko ospatu dituzte. Hilabete, hotza izan da otsaila, baina horrek ez ditu herritarrak etxean utzi. Horra hor, herriz herri aurtengoan bildutako zenbait irudi!

ALDATZ



ARRUITZ



BARAIBAR



BETELU



GRUPO TANATORIO
IRACHE
 TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
 LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
 enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
 okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32


GALBURUeco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
 948 50 40 42

ERRAZKIN

Bardoetako bigarren faserako sailkatu da "(Larraun da Araitz) Bi dozena" taldea



Amaitu da Bardoak egitasmoko lehen fasea eta dagoeneko erabakita daude bigarren fasean parte hartuko duten taldeen izenak. Gure eskualdetik "(Larraun da Araitz) Bi dozena" taldea parte hartzen ari da Nafarroako Taldeakako egitasmoko honetan eta ederki ari dira! Lehen saioa Iruñeko Zaldiko Maldikon izan zuten, Iruñeko 'Mirristi Drimtin' taldearekin. 50 entzule inguru bertaratu ziren. Beste talde bateko bi kideen eta epaile lanetan aritu ziren entzuleen iritziz larraundarren eta araitzarren taldea aritu zen hobekien.

Bigarren saioa berriz, Errazkingo Txirrika elkartearen izan zuten, Lizarrako "Lizaharrak" taldearekin. Bertako saioa ere irabazi egin zuten eta dagoeneko bigarren fasean dira.

Beraiekin batera bigarren itzuli honetan arituko dira Lesakako "Unibertsolariak", Berako "Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi", Baztan-Malerrekako "Addams familia", Leitzako "Aldatzea komeni" eta Iruñeko "Topa bardo kopa!".

Martxoaren 2tik 11ra beste sei saio jokatu dira eta hortik hiru talde sailkatuko dira martxoaren 24an, Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatu den finalera. Gure etxeko taldeak bi saio ditu aurretik, biak Lesakako taldearekin. Lehen, martxoaren 4an Aldatzen eta bigarrena, martxoaren 11n Lesakan.

Dagoeneko salgai daude finalerako eta ondorengo afarirako sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean eta Lekunberriko Lanbroa liburu-dendan.

BIGARREN FASEKO SAIOAK:

Martxoak 2

-Iruñeko Arrano elkartearen, 19:00etan.
"Topa bardo kopa!" eta "Addams familia".

-Berako Katakua tabernan, 22:00etan.
"Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi" eta "Aldatzea komeni".

Martxoak 4

-Aldazko Martixa elkartearen, 17:30ean.
"(Larraun da Araitz) Bi dozena" eta "Unibertsolariak".

Martxoak 9

-Erratzuko Zubipunta tabernan, 21:00etan.
"Addams familia" eta "Topa bardo kopa!".

-Leitzako gaztetxean, 22:00etan.
"Aldatzea komeni" eta "Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi".

Martxoak 11

Lesakako Arrano elkartearen, 17:30ean.
"Unibertsolariak" eta "(Larraun da Araitz) Bi dozena".

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

“Larraun berdintasunezko baloreetan eraikiz joango gara”

2016an jarri zen martxan Larraun Berdintasunean taldea martxoaren 8ko Emakume Langileen Egunaren harira. Emakume eta gizonez osatua dago eta Larraunen urte osoan zehar berdintasuna eta feminismoa lantzea ditu helburu. Orduz geroztik hainbat ekimen antolatu ditu.

Zenbat kide zabilzate lanean?

Talde eragilean Rakel Navarro, Ainhoa Fernandez, Joseba Artzeluts, Maialen Ruiz eta Aitziber Eleta gara. Ekimenak egiten ditugunean ordea, jende gehiagok laguntzen digu. Gonbita egin nahi dugu edozein emakume nahiz gizon taldean parte hartzera, proposamenak egitera... Sare sozialetan facebook (Larraunberdintasunean) eta twitterren (@LarraunBerdin) ere bagaude eta e-maila larraunberdintasunean@gmail.com da.

Zeintzuk dira taldeak dituen helburuak?

Emakumearen gaiari heldu nahi diogu, besteak beste, gizarte honetan duen papera, jasaten duen diskriminazioa eta hainbat aspektutan zapalkuntza ere, aldarrikapen ikuspuntu batetik landu nahi dugu. Zehatzago sexu-generoei dagozkien aldarrikapenez hitz egin beharko genuke sexu diskriminazioa jasaten duen komunitatea ere kontuan hartzeko (lesbiana, trans, homosexualak...). Azken batean, Larraun gizarte eredu hetero-patriarkal kapitalista baten parte ere da eta horrek dakartzan ondorioak jasaten ditugu.

Sortu zenutenetik hona zeintzuk izan dira antolatu dituzuen ekintzak?

Ekintza ezberdinak antolatu ditugu bi urte hauetan. Elkarretaratzeekin hasi ginen martxoaren 8an eta azaroaren 25aren harira. Honekin batera, elkarlanean ere Amaia Nausiaren *Virgenes o Putas* liburuaren hitzaldia antolatu genuen duela bi urte. Aurreko martxoaren 8an berriz, zaintza eta etxeko lanetan jarri genuen fokua eta Aldazko lixiba-tokian ekimen bat antolatu genuen. Urteetan zehar lixiba-tokiak emakumeen gune izan dira, haien lantokia izateaz gain sozializatzeko gunea izan baitira. Lan ezkutu eta gutxi baloratu hau

“Sektore batzuk oso feminizaturik eta beste batzuk oso maskulinizaturik daude”

bistaratzea zen gure helburua eta balorean jartzea Larraungo emakumeen lana. Lixiba-tokian lan egindako Larraungo hiru emakumeren testigantzak jasotzeko zortea izan genuen (Ane Miren Garro, Maxepa Arregi eta Maxux Arregi).

Noiz eta non biltzen zarete?

Ontza zulo elkarteetan biltzen gara, baina ez dugu egun finkorik. Maiztasun bat esateagatik 1 edo 2 hilabete behin elkartzen gara datozen hilabeteetan zer egingo dugun erabakitzeko. Horretarako, kartelak jarri eta sare sozialetan zabaltzen ditugu.

Martxoaren 8aren bueltan zer antolatu duzue?

Aurtengo martxoaren 8rako nazioartean mailan greba feminista deialdia eginga dago eta Larraun Berdintasunean taldeak deialdiarekin bat egiten du. Euskal Herriko mugimendu feministak egiten du deialdia eta sindikatu ezberdinek beraien sostengua eman diote (informazio gehiago <https://grebafeminista.wordpress.com>). Orain horretan gabiltza lanean buru belarri. Herri asanblada irekia egin da, batik bat herritar, eragile eta saltokiei informazioa emateko eta Larraunen zer egingen den erabakitzeko.

Emakumeak, lesbianak, etorkinak, transexualak... emakumego osoa deitua dago planto egin eta egun horretako mobilizazioetan parte hartzera. Gainera grebak hainbat esparru hartzen ditu, lana, zaintza, kontsumoa eta ikasleak. Indarkeria matxistari, esplotazioari eta diskriminazioari nahikoa dela esateko egiten da eta baita emakumeek

egiten duten lana balioan jartzeko. Jendea gaiaren inguruan hausnartu eta greba deialdiarekin bat egitea animatzen dugu. Euskal sindikatuek 4 orduko lan-uzteak bultzatzen dituzte. Eta arratsalde, 20:00etan manifestazioa egingen da Euskal Herriko hiriburuetan.

Eta 2018ari begira?

2018ra begira M8ko greba feminista pasa eta gero urte hasieran markatutako helburuak betetzen saiatuko gara. Hain justu, helburuak adosteko bilera ireki bat antolatu genuen abenduan.

Urtean zehar feminismoa eta berdintasuna presente edukitzea da helburuetako bat eta horretarako ekimenak antolatzeaz gainera instituzio eta eragileei begira ere jarriko gara haien agendan feminismoa txerta dezaten. Aurtengo beste erronketako batzuk gazteen eremua lantzen hastea da.

Zein esparrutan uste duzue ematen direla ezberdintasunik handienak gurean?

Alde batetik, zaintza-lanari dagokionez oraindik ere ardura nagusia emakumearen gain dagoela ikusten dugu. Honi gehitu behar zaio gaur egun emakume askok etxetik kanpo lan egiten dutela ere. Beraz, bi lanak uztartu behar dituzte, horrek dakarren karga fisiko eta mentalarekin.

Bestalde, lan-ordainua sektoreka aztertzen badugu, Larraun-



te tokietan gertatzen den bezala) sektore batzuk oso feminizaturik eta beste batzuk oso maskulinizaturik daudela ikusten dugu. Lan feminizatu asko zaintza eta hirugarren sektorearekin zer ikusia dutenak dira eta horietako asko prekarizatuak daude gainera. Sektore guztiek, alde batera nahiz bestera, hausnarketa sakon bat behar dutela iruditzen zaigu.

Lan asko dugu egiteke, baina baldintza egokiak daude aurrera jarraitzeko, jendartea geroz eta sentsibilizatuagoa dago eta elkarlaren bitartez joango gara Larraun aldatzen berdintasunezko baloreetan eraikiz.

“Emakumego osoa deituta dago planto egin eta egun horretako mobilizazioetan parte hartzera”





Martxoaren 24an arratsaldean eginen da 30. Legoa

30 urte beteko ditu aurten Arruizko Txikitoren omenezko Legoak. 1988an galdua zen inguruan lasterketak egiteko ohitura eta Karlos Baldak, Pako Ayestaranek eta Fermin Aldavek Lekunberriko Legoa berreskuratu zutenean jarri zioten izen hori Arruizko Juan Cruz Azpirotzen oroimenean.

Geroztik, Legoa lasterketa ofizial gisa antolatzen da. Antza 1903. urtean du jatorria Legoak. Urte hartan Lekunberri eta Azpirotz arteko joan-etorria korrika nork azkarrago egin lehian ibili ziren hiru korrikalari, Ezkurrakoa bata, Allikoa bestea eta Arruizkoa hirugarrena. Azkenean, jokoan zeuden ehun pezetak Arruizko Francisco Etxarrik irabazi zituen. Hasierako urte haietan lasterketak baino gehiago apustuak antolatzen zituzten. Asko izan ziren 20ko hamarkadatik 60ko hamarkadara bitarte eskualdean zeuden korrikalariak, baina Arruizko Txikito apustu eta proba askotan gailendu zen. 1959an, Lekunberriko Legoa 18 minutu eta 57 segundotan egitea lortu zuen eta inork ez zuen lortu denbora hori jaistea ia 30 urte luzetan.

Aurten, martxoaren 24an izanen da lasterketa. Igandetik larunbatara aldatu dute proba antolatzaileek eta goizez egin beharrean arratsaldean izanen da. Dagoeneko irekita dago izen emateko epea www.kirolprobak.com atarian.

Haurren lasterketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Sari banaketa 19:00ak aldera eginen dute, proba nagusiaren ondotik eta gero afari-merienda eskainiko dute parte-hartzaileentzako Gau Txori elkartearen.

Chi Kung-Tai Chi ikastaroa Arriben

Martxotik maiatzera bitarte Chi Kung-Tai Chi ikastaroa eskainiko da Arribeko udaletxean. Saioak asteazkenean izanen dira goizeko 9:30etik 11:00etara. Ikastaroa Juanjo Elolak eskainiko du. Dagoeneko taldea osatu da, baina oraindik izen emateko taldea zabalik dago. Animatu eta eman izena: 677 086 268 sakelako zenbakiaren bitartez edo jjelola@hotmail.com e-postara idatzita.

Amaitu da Neguko Pilota Txapelketa

Larraun Pilota Elkartek antolatutako Neguko Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten joan den hilean. Guz-tira, 16 bikotek parte hartu zuten.

Alebinetan, Joar Merino eta Endika Galarza izan ziren txapel-dun, Mattin Goikoetxea eta Aimar Ijurkoren kontra 18 eta 4 irabazi eta gero. Infantiletan berriz, Larraungo Akier Arroki eta Aimar Goldarazanak emaitza berberekin irabazi zieten, Araxes Elkarte Xabi Lasa eta Eneko Goikoetxeari.

Kadeteen mailan, Ultzamako Xabi Gerendian eta Julen Sarasak 22 eta 13 irabazi zieten Hodei Ijurko eta Iker Ortizi. Azkeneko partidua jubenilena izan zen eta Larraungo Iñaki Galarza eta Aimar Saralegi izan ziren txapel-dun. Zorionak guztioi!

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskalak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



Martxoaren 10ean hasiko da Binakako Pilota Goxua Txapelketa

Martxoaren 7an amaituko da Binakako Pilota Goxua Txapelketan izen emateko epea. Hilaren 10ean hasiko da txapelketa. Bikote bakoitzak 10 euro jarri beharko ditu. Irabazleentzako sariak izanen dira eta txapelketa amaitutakoan parte-hartzaileentzako afari bat antolatuko da. Animatu eta eman izena Plazaola Kirolgunean edota 677 755 147 eskuko zenbakiaren bitartez.

Crossfit ikastaroa Plazaola Kirolgunean

Crossfit ikastaroa eskainiko dute martxoaren 5etik aurrera Plazaola Kirolgunean. Saioak astelehenetan eta asteazkenetan izanen dira 20:30etik 21:30era. Ion Ander Unanua arituko da saioak gidatzen eta bertan egingo diren ariketak pertsona bakoitzaren arabera egokituko dira. Edozein adineko pertsonentzat dago zuzendua. Crossfit-a intentsitate altuko kirola da, eta hainbat kirol ezberdin barnebiltzen ditu eta besteak beste indarra, malgutasuna, abiadura eta oreka lantzen dira. Eman izena Plazaola Kirolgunean (948 507 377).

Bi diru-laguntza deialdi egin ditu Kirol Mankomunitateak



Diru-laguntza deialdia egin du Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak 2017-2018 ikasturtean kirol jarduerak sustatzeko.

Mankomunitatearentzat intereseko diren eskola-adineko kirol jardueren sustapenean kirol klubaren parte hartzea handitzea da helburua.

Eskaerak Kirol Teknikariaren bulegoan edo Lekunberriko Plazaola kiroldegian aurkeztu behar dira martxoaren 26a baino lehen. Deialdi honetan, Mankomunitateak 3.500 euro bideratuko ditu gehienez. Bestetik, bigarren deialdia ere zabaldu du 2017. ekitaldian kirol arloan formazio gastuak izan dituzten pertsonentzat. Horretarako, Kirol Mankomunitateak bere aurrekontutik 1.000 euroko partida izango du. Kasu honetan, eskaerak martxoaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago: 948 46 48 66 telefono zenbakian edo kirol-mankomunitatea@gmail.com e-postaren bitartez.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

H mutue

H mutue dela eakusten digue eskolan. Mutue o tranpatie, ezer esan bare eoten delako gañeako hizkin artean, eztola deustaako balio emateolako, beño hortxe eoten delako ixil-ixilik.

Mutu o tranposo, izena dona ba omen da, ta majiñeat buukomin eraitte batto re, H re bada. Ez baitee gauze bea, esate bateako, armonie ta harmonie. H hizkiek markatzeon añeko muga lausoa eon litteke askotan armonittik harmonire.

Harmonie da kafe o ur zikin baten aitzikin, aspaldi ikusi bareko launekin topo in ta berriketan aitzean o betiko launekin betiko kontutan aitzeko bildu ta launarte hortan sortzean giro atseiñe. Harmoni bikañe sortu leike lan talde batean, bakoitze kolore batekoa izanda re eskubide berak defendatzeko elkarlanean aitzea erabakitzen duenean; goiz bateko lana ta urtean behingoa dela jakinda harmoni earrean aitzen dee herritarrak festa aurretik plaza inguruk txukuntzen auzolanean.

Atseiñe da harmonie irauteon bitartean. Une hoik zapuzten zalea den baten bat beti izaten baita, pazintzie eta H-a bea re galduazte' tton ergel o lixtomarin bat. Hau ta beste, honek harri eta harrek honi, dena armonie ta akau harmonie!

Nekagarrie da oso, eun guztin armonike aitzen den hue: zopa zozoa daulako, gatza bota eta gaziye daulako, gaziak ez baito bueltik; kafea epela daulako, ta geiei beotu ezkeo, mingaño erre zaiolako; umean armonik radioa aitzen uzte eztiolako, ta tenporak zertan geatu deen aittu ez tolako; egualdiena pasa zaiolako, ea hurrungoan! Hasi da, baño umeak berrize been artean armonike, ama ondotik ixilduazten, eta attuna re armonike, ta akau, berrize pasa da kostara euzkien ta lañoan ixtorie. Berrize egualdiena aittu bare, non da sokalde hartako harmonie! Armonie da karta jokun galdu ta berrize apaie paatzea tokatu zaion arren aitziki merkea, bateko karta txarra, besteko tranpa. Armonie egoardin bazkaltzea jekiazten duen gaztean alein antzue...

“Armonie eta zikiñe, jo zak lanean”, esan omen zion nausiek alperrai!

Ups!...parra ttikiet ez oteoten ikusi irakurlean ezpaiñ hoitan, noizpatte aittue ote da ba holakoik? H mutue berrize jantzi ta harmoni pixkoat sortzea lortue oteu ba letra hok leittu bitartean?

ZAINDU MAITE DUZUN HORI... ZURE ETXEBIZITZA

25 urte gorako
etxebizitzaren zaharberritzea
**Orain laguntza +
%60 arteko dirulaguntzak**

Informazioa eskatu

ore

Oficina de
rehabilitación
de viviendas
y edificios

Elbarren 1, bajo. Leitza

948 510 009
www.etxebizitza.nafarroa.eus



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Euskaraldia, 11 egun euskaraz

Martxoaren 14an egingo du Topaguneak Euskaraldia ekimenaren aurkezpen ofiziala Iruñean. Topaguneak berak kudeatuko duen proiektu bat da Euskal Herri osoan eskualdez eskualde sortuko diren batzordeen bitartez.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, hamaika egunez euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugunon artean euskaraz aritzea da ekimenaren funtsa. Aski frogaturik baitago halako ekimen txikiek gure hizkuntza ohituratan eragin dezaketela.

Hamasei urtetik gorako herritar eskaldunek izanen dute ekimenean parte hartzeko aukera, hitz egiteko eta ulertzeko gaitasuna dutenek ez ezik hitz egiteko gai ez izan arren ulertzeko kapaz direnek ere parte hartu dezakete.

Horretarako parte hartu nahi duten herritarrek aurrez izena eman beharko dute eta izen ematearekin batera txapa bat emango zaie. Bi txapa mota egonen dira, bata Ahobiziarena eta bestea Belarriprestena. Ahobiziak diren horiek ulertzen duenari euskaraz egingo diote besteak erdaraz erantzun arren, eta ezezagunari lehenengo hitza gutxienez euskaraz

egingo diote. Belarri prest direnek aldiz, ez dira euskaraz aritzeko gai izango edo zailtasunak izango dituzte, baina ulertzeko gai direnez beraiei zuzentzerako orduan eskaraz egiteko eskatuko diete gainerako herritarrei eta erdaraz nahiz euskaraz erantzuteko aukera izanen dute.

“Euskararen erabilera sustatzea da asmoa eta hitz egitera ausartzen ez diren horiei bultzada ematea”

Herritarrek, bi rol horietan sarturik, hamaika egunez euren harremanetan jartzeko ohiturak aldatuko dituzte.

Gainera, Euskal Herri osoan aldi berean antolatuko den ekimen bat izanik, gure eskualdetik kanpo, identifikagarriak diren txapa horiek eramaneraz gero, ezezagunekin aritzeko aukera ere izanen dugu.


Hori baita helburua, hizkuntzaren erabilera ohiturak hautsi eta al-

datzea. Eta bide batez tokian tokiko eskualtzaleen sareak aktibatu eta indartzea. Gure eskualdean euskararen ezagutza altua den arren, zenbait herritan erabilera ez da horren altua. Euskaraldiarekin, euskaraz hitz egiteko gai diren horien erabilera sustatzea da asmoa eta euskaraz ulertu arren hitz egitera ausartzen ez diren horiei bultzada emango zaie pixkanaka gai direla erakutsiz.

Joan den hilean Euskara Batzordeak deituta egitasmoa aurkezteko bilerak egin ziren bai Larraunen eta baita Araitz eta Betelun ere. Larraunek Euskaraldiarekin bat egin du eta dagoeneko ekimena martxan jartzeko batzordea sortzea erabaki du. Horretarako ordea, behar-beharrezkoa izanen da (bakoitzak ahal duen neurrian) lanerako prest egongo den jendea batzordera batzea.

Batzordearen lana hemendik aurrera bitarte ekimenaren nondik norakoak zabaltzea eta herritarrek aktibatzea izanen da. Euskaraldia azaroan izanen den arren, parte-hartzaileek irailetik aurrera eman beharko dute izena eta hilabete horietan zehar hainbat ekintza antolatuko dira.

Araitz eta Betelun apirilaren 8a



TAILER
eskaintza berezia

Tailer eskaintza berezia Aitzberrin!!

- Aurpegiko zainketa.
- Makillatzen ikasteko oinarriko irizpideak.
- Norbere burua makillatzeko ikastaroa.
- Janztearen artea.

Lako beikoa, 3. behea
31890 Betelu

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Kontsulta itzazu datak eta prezioak 696 732 290 zenbakiaren bitartez.
Eta orain dohainik parte hartu dezakezu!! Galdetu nola WhatsApp bidez!!



baino lehen hartu beharko dute erabakia. Larraungo batzordeak hurrengo bilera martxoaren 20an egingen du, 17:00etan, Larraungo AEK-ren egoitzan. Animatu eta etor zaitez! Eta ezinezkoa baduzu, eman izena Euskaraz Zerbitzuan (larbeleareuskaraz@iparmank.eus).

Informazio gehiago:
www.euskaraldia.eus

Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da Euskaraldia ekimena martxan jarri eta burutzeko. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte herritarrek euskaraz egingo dute. Larraunen dagoeneko hartu dute erabakia eta ekimenerekin bat egingo dute. Aritz eta Betelun bilerak egingen dabilta gaia aztertzeko.

Euskaraldia martxan jartzeko batzordea sortu da Larraunen. Arg: Labrit.



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA, BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948 60 48 21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO AZKEN MOZIOAK

Torturaren aurkako mozioa.

1. Larraungo Udak tortura kasuak ikertzeko eta azaleratzeko beharra agertzen du eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaltzen die. Era berean, egia, aitortza eta erreparazioarako daukaten eskubidean laguntzeko bere prestutasuna agertzen du.
2. Larraungo Udak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio torturaren gaia azaleratzen eta biktimak erreparatzen laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezan eta bide horretan egiten ari den eta eginen dituen urratsei babesa ematen die. Hartara, torturak dokumentatzeko egitasmoaren garrantzia eta beharra azpimarratzen du.

Kontzejuekin elkarlanean Larraungo Udalerriari desfibriladoreak jartzeko proposamena.

1. Larraungo Kontzejuekin elkarlanean desfibriladore semi-automatikoak (DESA) herrietan jartzeko aukerak aztertzea.
2. Lehenengo puntua garatzen bada, DESAren formazio saioak antolatzea herritarrentzat. Eta DESAren erabileraren inguruko hitzaldi ireki bat antolatzea interesa daukaten herritarrentzat.

Estrategia municipala eta hirigintza araudia berrikusteko proposamena.

1. Larraungo Udak estrategia municipala berrikustea (orain arteko lanak abiapuntu bezala hartuz), Larraungo udalerriak gaur egun dituen erronkei erantzunez. Herritarren eta kontzejuen parte-hartze aktiboa eta loteslea sustatuz prozeduraren fase guztietan (diagnostikoa, aurre-txostena, onarpena).
2. Larraungo hirigintza araudiaren aldaketak gauzatzeko konpromisoa hartzea. Hau garatzeko, herritarren parte-hartzearen bitartez eginen da.
3. Hartutako erabakiak hurrengo hilabeteetan martxan jartzea.

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurru itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MAILOPE!
GUNDU MAILO
LAGUN

MAILOPE!
GUNDU MAILO
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

MARTXOA

7 | LEKUNBERRI:

Pintxo prestaketa 19:00etan eta dastaketa 20:00etan Kattagorri elkartearen.

8 | ESKUALDEA:

Emakumeen Nazioarteko Eguna. Elkarretaratzeak 12:00etan eta 12:30ean.

10 | LEKUNBERRI:

Emakumeen Nazioarte Eguneko afaria Euskalduna Tabernan.

10 | LARRAUN:

Altsasu Gurasoak plataformako karabana iritsiko da Larraunera.

16 | LEKUNBERRI:

"Libre tú, libre yo" antzezlan 19:30ean, Kantinan.

17 | BETELU:

Barrikotea Beteluko ostatuan.

17 | LEKUNBERRI:

"Garaia da" Aralar Musika Eskolako abesbatza-
ren kontzertua 19:30ean kiroldegian.

20 | LEKUNBERRI:

Euskaraldiako batzordearen bilera Larraungo
AEK-ko goitzan 17:00etan.

21 | ARRIBE:

Araitzen lan eta bizi batzordeak deitutako
bilera 18:00etan Araizko liburutegian.

24 | LEKUNBERRI:

XXX. Arruizko Txikitoren Omenezko Legoa.

25 | LEKUNBERRI:

CHARLIE CRUZ & THE COOL CATS Texaseko
taldearen kontzertua Kantinan 19:00etan.

SALGAI

- Txabola saltzen da. 6x2,5 metro karratuko txabola, suarekin, mahaiarekin eta ohearekin.
(Vicente 662 565 636).



BESTERIK

- Betelun azaroaren bukaeran urrezko lepokoa eta zintzilikarioa aurkitu ditugu. Jabeak deitu dezala 606 375 855 mugikor zenbakira.

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. 5 hilabete dituzte. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. 629 403 220 (Iñaki).

Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER
634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -
PATXI GALARZA
Astelehenerik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34





inoveak inunteriak

